



IKASTURTEAREN HASIERAKO ESLEIPENA

2025-26

**FISIOTERAPEUTEN, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA
LAGUNTZAKO ESPEZIALISTEN, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIAL
EGOKITZAILEEN ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETEEN
KATEGORIETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAI-ZERRENDAN PARTE
DIRENAK**

Prozesuaren gida

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekaina

I. ARAUDIA.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko aginduan (2019ko ekainaren 17ko EHAA) jasota agertzen da fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei lanpostuak esleitzeko prozesuaren erregulazioa.

II.- EGUTEGIA.

Esleitzeko prozesua ondorengo egutegi eta ordutegiaren arabera eramango da aurrera:

2025/07/03	Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialerako bakarrik) eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda argitara ematea, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioerako.
2025/07/03-2025/07/04	Lurralde historikoaren, destinoaren (partzialak soilik) eta lanaldiaren aukeren behin-behineko zerrenda horren aurka, Hezigunean argitaratutako formulario baten bidez aurkeztu ahal izango dira.
2025/07/07	Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialerako bakarrik) eta lanaldi motaren aukeren behin betiko zerrenda argitara ematea, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioerako.
2025/07/07 (barne) [ZHIak salbu]	Ordezko gaiak 2025/06/27ra arte dute, 24/25ko ikasturteari begira, beren lan-egoera eta hizkuntza-eskakizuna aldatzea eskatzeko aukera. Horretarako, Hezigunean argitaratutako formularioa erabili beharko dute. Era berean, maiatzaren 6an ordezkapen-kontratu bat ez zuten eta ondorioz uko egiteko prozesuan uko egiterik izan ez zuten langileek, 2025-06-27a baino lehen ordezkapen-kontratu bat eskaini bazaie, egun horretara arte (2025-06-27ra arte) uko egin ahal izango diote, ikasturte hasierako esleipen-prozesuan parte hartzeko helburuarekin.
2025/07/10 [ZHIak salbu]	Parte-hartzaileen behin-behineko zerrendaren argitalpena.
2025/07/11 09:00ak arte [ZHIak salbu]	Zerrenda horren aurka erreklamazioak aurkeztu daitezke 2025/07/10eko 09:00ak arte. Erreklamazioak Hezigunea atarian. Posta elektronikoa horretara idazki sinatua eta NANaren kopia erantsi beharko da.
2025/07/11 [ZHIak salbu]	Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda ematen da argitara.

2025/07/11 [ZHIak salbu]	Eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda ematen da argitara.
2025/07/21eko 09:00etatik 2025/07/23ko 15:00etara arte [ZHIak salbu]	Eskaerak telematikoki egiteko epea hasiko da.
2025/07/24an, 11:00etan [ZHIak salbu]	Lanpostuak behin-behingo esleituko dituen ebazpena.
2025/07/24ko 11:00etatik 2025/07/28ko 11:00etara arte. [ZHIak salbu]	Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira behin-behineko ebazpen horren kontra, Hezigunea ingurunean eskura dagoen aplikazio informatikoaren bidez. Erreklamazioak Hezigunea atarian. Posta elektronikoko horretara idazki sinatua eta NANaren kopia erantsi beharko da.
2025/07/29 [ZHIak salbu]	Erreklamazioak ebazten dituen ebazpena. Data honetan amaitzen da prozesua kategoria guztientzako, zeinu-hizkuntzako interpreteak salbu.
2025/08/21 (barne) [ZHIak]	ZHIen ordezkogaiak 2025/08/21era arte dute, 24/25eko ikasturteari begira, beren lan-egoera eta hizkuntza-eskakizuna aldatzea eskatzeko aukera. Horretarako, Hezigunean argitaratutako formularioa erabili beharko dute. Era berean, maiatzaren 6an ordezkapen-kontratu bat ez zuten eta ondorioz uko egiteko prozesuan uko egiterik izan ez zuten langileek, 2025-08-21a baino lehen ordezkapen-kontratu bat eskaini bazaie, egun horretara arte (2025-08-21era arte) uko egin ahal izango diote, ikasturte hasierako esleipen-prozesuan parte hartzeko helburuarekin.
2025/08/23 [ZHIak]	ZHIen parte-hartzaileen behin-behineko zerrendaren argitalpena.
2025/08/26 09:00ak arte [ZHIak]	Zerrenda horren aurka ZHIek erreklamazioak aurkeztu ditzakete 2025/08/25eko 09:00ak arte. Erreklamazioak Hezigunea atarian. Posta elektronikoko horretara idazki sinatua eta NANaren kopia erantsi beharko da.
2025/08/26 [ZHIak]	ZHIen parte-hartzaileen behin betiko zerrenda ematen da argitara.
2025/08/26 [ZHIak]	ZHIen eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda ematen da argitara.
2025/08/27ko 09:00etatik 2025/08/28ko 09:00ak arte	ZHIen eskaerak telematikoki egiteko epea hasiko da.

[ZHIak]	
2025/08/28an [ZHIak]	ZHIei lanpostuak behin-behingo esleituko dituen ebazpena.
2025/08/29ko 11:00etara arte. [ZHIak]	ZHIek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira behin-behineko ebazpen horren kontra, Hezigunea ingurunean eskura dagoen aplikazio informatikoaren bidez. Erreklamazioak Hezigunea atarian. Posta elektronikoko horretara idazki sinatua eta NANaren kopia erantsi beharko da.
2025/08/30	Lanpostuak behin betikoz esleituko dituen ebazpena.
2025/09/01	Jabetza-hartzearen eta kontratazioaren ondorioak.

III. NORK HARTZEN DU PARTE?

a) Prozesu honetan ondorengo pertsonak hartuko dute **derrigorrean** parte:

- Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnak, betiere prest badaude eta ondorengoa bezalako edo hortik gorako puntuazioa badute:
 - a) Fisioterapeuta: 19
 - b) Terapeuta okupazionala: 5
 - c) Hezkuntza-laguntzako espezialistak: 3
 - d) Zeinu-mintzairaren interpretea: 0
- Halaber, adierazitako puntuazioa edo handiagoa duten, lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik, edo haurra izen dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; amatasun- edo aitatasun-egoeran; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran; edo jardunaldi-etete iragankorrean (seme-alabak zaintzeko edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitu dietelako) dauden ordezkoakiek, betiere egoera horiek behar bezala justifikatuz gero, hartu beharko dute derrigorrean parte.

b) Ondorengo pertsonak hartuko dute prozesu honetan **borondatez** parte:

Aurreko puntuan ezarritakoa baino puntuazio txikiagoa duten ordezkogaiak. Dena den, derrigorrean parte hartu behar ez duten arren, izango dute borondatez parte hartzeko aukera.

****Abisua:* Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnek derrigorrean parte hartu beharko dute finkatutako puntuazioa duten edo gainditzen duten kategorietako lanpostuetarako deialdietan. Puntuazioa ez duten edo gainditzen ez duten kategorietako lanpostuetan, ordea, ez dute derrigorrean parte hartu beharko.

IV. PROZESUAN ESLEITZEN DIREN LANPOSTUAK.

a) Lanpostuen zerrenda argitara ematea.

Eskainitako lanpostuen **behin-behineko** zerrenda eta berorien ezaugarriak hasierako ebazpenaren C eranskinaren bidez ematen dira argitara.

Eskainitako lanpostuen **behin betiko** zerrenda eta berorien ezaugarriak 2025/07/10ean emango dira Hezkuntza Sailaren web orrian argitara (zeinu-hizkuntzako interpreteena 2025/08/26).

b) Lanpostuen ezaugarriak.

Zerrendan lanpostuen ezaugarri konkretuak jasota agertuko dira: kategoria, lurralde historikoa, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna edota destinoa, baita lanpostuaren funtsezko beste edozein ezaugarri ere.

Berritzegunea ez den destino bat duten lanpostuen kasuan, Administrazioak Berritzegunearen fikziozko destino bat emango die lanpostu horiei, zerbitzuak eman behar diren ikastetxea dagoen zonaldearen arabera, interesatuari interesa duen lanaldi partzialeko lanpostuak bakarrik esleitzea aukeratu ahal izateko.

c) Lanpostuen kategoria.

Esleitzeko prozesu honetan kategoria hauetako lanpostuak eskainiko dira:

a) Fisioterapeuta.

- b) Terapeuta okupazionala.
- c) Hezkuntza-laguntzako espezialista.
- d) Zeinu-hizkuntzako interpretea.

V.- KONTRATU MOTA.

Eskainitako lanpostuak ondoren adierazten diren kontratuen bidez beteko dira:

- Lanpostu hutsarengatik bitarteko kontratua.
- Urte sabatikoarengatik ordezkapen-kontratua (iraupena: ikasturte osoa)
- Ordezkapenak liberazio sindikalagatik (aurreikusitako iraupena ikasturtekoa izango da, salbu eta aurretik lanpostuaren titularraren liberazioa amaitzen bada).

Kontratuaren modalitatea eskainitako lanpostuaren ezaugarrien artean adieraziko da eskainitako lanpostuen **behin betiko** zerrendan, 2025/07/10ean emango dena argitara Hezkuntza Sailaren web orrian (ZHIen kasuan, 2025/08/26an).

VI.- LANPOSTUETARA SARTZEKO BALDINTZAK.

Lanpostu batera sartu ahal izateko, eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko dira, kategoria, lurralde historiko, lanaldi eta hizkuntza-eskakizunari begira.

Pertsona bakoitzak izango du, lanpostu batean aritzeko baldintza guztiak betetzen baditu, lanpostu hori eskatzeko eta hartzeko aukera.

Horretarako, 2025-2026ko ikasturterako egindako birbarematzearen ondorioz ordezkapenak egiteko argitara emandako ordezkogaien zerrendan agertzen diren aukerak, kategoria, lurralde historiko, lanaldi eta hizkuntza-eskakizunari begira, hartuko dira kontuan, hurrengo puntuan xedatzen denaren kalterik gabe.

Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, HLEA hizkuntza-eskakizuna dutenek izango dute euskarazko edo gaztelaniazko lanpostuetara sartzeko aukera, eta 1. hizkuntza-eskakizuna dutenak edo 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenak gaztelaniazko lanpostuetara sartuko dira.

VII.- ESLEITZEKO PROZESUA BAINO LEHENAGOKO ALDAKETAK.

a) Lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialetarako bakarrik) eta lanaldiaren aldaketak.

2025eko uztailaren 2ko 09:00etatik uztailaren 3ko 14:00ak arte aldatu ahal izango dira lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialetarako bakarrik) eta

lanaldi-motaren aukerak. Eskatutako aldaketak bakarrik ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesu informatikorako izango dira baliagarri eta, horregatik, prozesu horiek bukatzean, 2025-26ko ikasturterako birbarematze-prozesuaren ondorioz hautatu diren aukerak izango dira balio dutenak, hau da, ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnen behin betiko zerrendan jasota agertzen direnak.

Ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioetarako ordezkogaiek hautatutako lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialetarako bakarrik) eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda 2025eko uztailaren 2an eta behin betiko zerrenda 2025eko uztailaren 3an emango da argitara.

Zehatzago esanda, **lanaldi partzialetarako destinoa aukeratzeari** dagokionez, ondorengoa hartu behar da kontuan:

Prozesu honetan, lanaldi murritzeko lanpostu bati uko egiteko, helbidearen eta lanpostu hori dagoen ikastetxe publikoaren artean 50 kilometro baino gehiagoko distantzia egotea ezin izango da lanpostu horri uko egiteko arrazoia izan.

Horregatik, 2025eko uztailaren 2ko 09:00etatik uztailaren 3ko 14:00ak arte interesatuek izan dute, lurralde historikoaren eta lanaldiaren aukerak aldatzea eskatu ahal izateaz gain, lanaldi partzialetarako destinoa aukeratu ahal izatea. Prozesu horretan izango ditu bakarrik aldaketa horrek ondorioak.

Haien destinoa Berritzegunea ez den lanaldi murritzeko lanpostu horien kasuan, lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitzea interesatzen zaien zonaldeko Berritzegunea aukeratu beharko dute ordezkogaiei zerrendetako kideek.

Aukeraketa hori gauzatzeko, Administrazioak fikziozko Berritzegune baten destino bat emango die Berritzegunea ez den destinoa duten lanpostuei, zerbitzuak eman beharreko ikastetxea dagoen zonaldearen arabera.

b) Lan-egoera aldatzea.

Ordezkogaiek 2025/07/07rarte (barne), izango dute 25/26ko ikasturteari begira beren lan-egoera aldatzea eskatzeko aukera.

Horretarako, Hezigunean argitaratutako formularioa erabili beharko dute.

c) Hizkuntza-eskakizuna.

Geroagoko arrazoiengatik egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna aldatu nahi duten pertsonak, berariazko eskaera aurkeztu beharko dute pertsonal zerbitzuetan, gutxienez eskaerak egiteko epea hasi baino hiru egun lehenago, eta behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Horretarako, Hezigunean argitaratutako formularioa erabili beharko dute.

VIII. - ESKAERAK.

a) Informazio orokorra.

Prozesuan parte hartzea formalizatzeko, **eskaera elektronikoa** helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio>, bete beharko da.

Identifikazioa erabiltzaile eta pasa-hitzaren bidez egingo da eta, izan ezean, NANarekin eman beharko duzu altan. Sartzeko pasahitza gogoratu ezean, berreskuratzeko erabilgarri bat izango duzu aipatutako helbidean.

Aplikaziora lehen aldiz sartzen denean, altan emango da eskaera eta horrek emango dio parte-hartzaile bakoitzari identifikazio- eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatzeko aukera.

Ingurune horretara Internet-ekin konektatuta dagoen edozein ordenagailutatik sartu ahal izango da.

Pertsona bakoitzak eskaera bakarra izango du.

****Oharra: arren, eskaera azken egunean ez egitea gomendatzen dugu, sartzeko arazoren bat izanez gero agian ezin izango baita konpondu azken momentuan.*

b) Eskaera egiteko epea.

2025eko uztailaren 21eko 09:00etatik 2025eko uztailaren 23ko 15:00etara (salbu zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan).

Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, eskaera egiteko epea 2025eko abuztuaren 27ko 09:00etatik 2025eko abuztuaren 28ko 09:00etara

c) Eskaera betetzeko era.

Eskaera bakarra formalizatuko du parte-hartzaile bakoitzak, lan-kategoria bat baino gehiagoko lanpostuak eskatzen diren arren.

Eskaera egiteko 500 lerro izango ditu parte-hartzaile bakoitzak. Ez dira guztiak bete behar. Eskaerak **bi eratan** egin daitezke:

– **Eskaera konkretua:**

2025eko uztailaren 10ean argitara emandako lanpostuen behin betiko zerrendan lanpostuak esleituta duen hurrenkera-zerrenda adierazten denean (ZHIen kasuan 2025ko abuztuaren 26ko zerrenda). Lanpostu bakar bati buruzkoa da.

– **Eskaera generikoa:**

Lanpostu konkretu bat adierazten ez bada eta lanpostuen ezaugarriak buruzko eremuetakoren bat betetzen bada. Haietako bat bakarra edo bat baino gehiago aldi berean bete daitezke.

Eremuak hauek dira: kategoria, lurralde historikoa, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna edota destinoa.

Eskatzeko era honek erabilitako eremuari edo eremuei dagozkien lanpostu guztiak eskatzea dakar, eskatzaileak sartzeko baldintzak betetzen baditu, eta sistema informatikoak ordena honetan garatuko ditu:

-Kategorien arabera, hurrenkera honetan: Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interpretea.

-Lurralde historikoen arabera, hurrenkera honetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

-Lanaldi osoan; lanaldi partzialean.

-Hizkuntza-eskakizunaren arabera: hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak eta, geroago, hizkuntz eskakizunik gabekoak.

-Destinoaren arabera, hezkuntza-pertsonalaren lanpostuak lanpostu-zerrendan agertzen diren destino-ordenaren arabera.

Sistema informatikoak eskaera generikoak, sartzen dituzten lanpostuen multzoan, garatuko ditu. Lanpostu horiek guztiak eskaeraren barruan egongo dira.

Horretarako, eskatzaileak prozesuan parte hartzen duen baldintza eta aukera guztiak hartuko dira kontuan.

Hezkuntza Arreta Terapeutikorako zentroetako hezkuntza-laguntzako

espezialisten eta arreta igerilekuan ematea eskatzen duen Gorbeialde Hezkuntza Zentro Bereziaren lanpostuei dagozkienak ez dituzte eskaera generikoak sortuko, ezta Hauspoa daramaten lanpostuak ere.

Eskaera berean lanpostu konkretuen eskaerak eta eskaera generikoak egin daitezke.

d) Katgoria bat baino gehiagoko ordezkapenak egiteko ordezkogaiek lanpostua aukeratzea.

Kategoria desberdinetan agertzen diren eta kategoria horietako guztietako lanpostuak aukeratu behar dituzten (derrigorrean parte hartu behar badute) edo aukeratu nahi dituzten (borondatez parte hartzen badute) pertsonak eskaera bakarra egingo dute.

Eskaeran kategoria desberdinetako lanpostuak sartu ahal izango dituzte, komeni zaienaren arabera. Interesatuak adierazitako lehentasun-ordena kontuan hartuko du sistemak.

e) Eskaera aldatu eta ixtea.

Eskaera altan eman ondoren, irekita jarraituko du eta, aurkezteko epea itxi arte, edozein unetan aldatu ahal izango da. Sartutako datuak zirriborroaren formatuan inprimatu ahal izango dira.

Eskaera hori automatikoki itxiko da epea bukatu ondoren. Horiek horrela, ordurarte grabatua izan dena hartuko da kontuan.

Eskaerak aurkezteko epea igaro ondoren, ezin izango da inolako aldaketarik egin eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lortu ahal izango du, erregistratutako aukera eta eskaerekin.

f) Balidatzeak

Eskaerak aurkezteko epeak bukatu ondoren, sistemak sartutako datuak egiaztatuko ditu eta, parte-hartzaileek eskaera batzuetarako baldintzak betetzen ez badituzte, ez ditu eskaera horiek onartuko.

Koherentziarik gabeko elementuak dituzten eskaerak, deitu gabeko lanpostuei dagozkienak eta parte-hartzaileak eskatu ezin dituen ikastetxe edo lanpostuei dagozkienak ere ez dira onartuko.

Behin-behineko ebazpena argitara ematen den unetik aurrera, parte hartzeko

egiazko baldintzak agertzen dituen inprimaki bat lortu ahal izango da; hots, onartuak izan diren eta onartuak izan ez diren eskaera eta aukerak adieraziko dituen inprimakia. Eskaerak onartu ez izanaren ondorioz ezin izango da eskaera aldatu.

IX. DERRIGORREAN PARTE HARTU BEHARREKO ORDEZKOGAIEN ESKAEREN EZAUGARRI BEREZIAK: ESKAERAK DERRIGORREAN SORTZEA.

Derrigorrean parte hartu behar duten pertsonen eskaeretan, pertsona bakoitzarentzat zerrendan agertzen diren hizkuntza-eskakizunera, lanaldira eta lurralde historikora egokitutako lanpostu guztiek agertu beharko dute:

a) Pertsonak derrigorrean parte hartu behar badute eta ez badute eskaerarik aurkezten, sistema informatikoak derrigorrezko eskaera bat egingo du eta parte-hartzaileak sartzeko baldintza guztiak betetzen dituen lanpostu guztiak sartuko ditu eskaeran.

Ez da hori, beraz, mugatzat jotako puntuazioaren azpitik dauden ordezkogaien kasua, ez baitute derrigorrean parte hartu behar.

Derrigorrezko eskaeran sartuta dauden eskaerak ondorengo ordenaren arabera ordenatuko dira:

-Kategoriaren arabera, ordena honetan: fisioterapeuta, okupaziozko terapeuta, Hezkuntza Laguntzako espezialistak, transkribatzailea /materialaren egokitzailea eta Zeinu Mintzairaren interpretea.

-Lurralde historikoen arabera, ordena honetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

-Lanaldi osokoak; lanaldi partzialekoak.

-Hizkuntz eskakizunaren arabera, ordena honetan: hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak eta, geroago, hizkuntz eskakizunik gabekoak.

-Destinoaren arabera, hezkuntza-pertsonalaren lanpostuak lanpostu-zerrendan agertzen diren destino-ordenaren arabera.

b) Derrigorrean parte hartu behar duten pertsonak borondatezko eskaera bat, parte-hartzaileak sartzeko baldintzak betetzen dituen eskaerak agortu gabe betetzen badute, sistemak derrigorrean sortzen dituenak esleipenerako ordenatuko dira, borondatez egindako azken eskaeraren ondoren eta aurreko a)

letran adierazitako ordena berean.

Hezkuntza Arreta Terapeutikorako zentroetako hezkuntza-laguntzako espezialisten eta arreta igerilekuan ematea eskatzen duen Gorbeialde Hezkuntza Zentro Bereziaren lanpostuei dagozkienak ez dituzte derrigorrezko eskaerak sortuko, ezta Hauspoa (Hedatzen) daramaten lanpostuak ere.

X. BORONDATEZ PARTE HARTZEN DUTEN ORDEZKOGAIEN ESKAEREN EZAUGARRI BEREZIAK.

Borondatez parte hartzen duten pertsonak izango dute eskaera, parte hartzaileak sartzeko baldintzak betetzen dituen eskaera guztiak agortu gabe, egiteko aukera.

Edonola ere, esleitzeko prozeduran eskaera horiek bakarrik hartuko dira kontuan eta ez zaie derrigorrezko lanpostu bat inoiz ere esleitu.

XI. LANPOSTUAK ESLEITZEA.

a) Lanpostuak esleitzeko irizpideak.

Ondoren adierazten diren irizpide espezifikoaren arabera esleitu dira lanpostuak:

- Ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendan izaten den posizioaren arabera izango da esleitzeko ordena.
- Eskaera osatzen duten lanpostuen artean, libre dagoen eta baliagarri den lehena esleitu zaio pertsona bakoitzari. Horretarako, eskaera konkretuak eta eskaera generikoak garatzearen eta derrigorrezko eskaerak sortzearen ondoriozkoak, aurreko ataletan adierazitako ordenan, hartuko dira kontuan.

b) Behin-behineko lanpostuen esleipena.

2025eko uztailaren 24ko 11:00etan emango da argitara lanpostuak behin-behingo esleitzen dituen ebazpena (zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2025eko abuztuaren 29an).

c) Erreklamazioak egiteko epea.

2025eko uztailaren 24ko 11:00etatik 2025eko uztailaren 28ko 11:00etara izango da lanpostuak behin-behingo esleitzen dituen ebazpenaren kontra erreklamazioa jartzeko aukera (zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2025eko abuztuaren 30eko 11:00ak arte).

Erreklamazioak Hezigunea ataritik egingo dira.

d) Erreklamazioak baiesten/ezesten dituen ebazpena.

Erreklamazioak baiesten/ezesten dituen ebazpena 2025eko uztailaren 29an argitaratuko da.

e) Behin betiko lanpostuen esleipena.

2025eko abuztuaren 30ean emango da argitara lanpostuak behin betikoz esleitzen dituen ebazpena.

XII.- ONDORIOAK ETA KONTRATAZIOA

a) Ezin izango zaie esleitutako lanpostuei uko egin.

a.1) Ezin izango zaio lanpostuetan aritzeari uko egin, ordezkapenak egiteko ordezkgaiien zerrenda kudeatzeari buruzko indarreko legeriaren arabera uko egiteko arrazoietakoren bat betetzen duten ordezkgaiien kasuan izan ezik, betiere arrazoi horiek ustekabeko egoera berriek, eskaerak aurkezteko epea hasi aurreko hiru egunetatik jabetza-hartzera bitartean, eragin badituzte eta ez badira alegatzen dituen pertsonaren borondatezko jardura batek eragindakoak.

Adibide moduan:

Kontuan hartuta parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda 2025ko uztailaren 10ean argitaratzen dela eta esleipenaren ondorioak 2025ko irailaren 1etik aurrera izango direla, lan-egoera aldatzeko azken eguna eskabideak aurkezteko epea hasi baino bi aste lehenagokoa da (hau da, 2025ko uztailaren 11ra arte):

- Hautagai batek, emandako epearen barruan beste enpresa batean 2025-08-27ra arte indarrean zegoen kontratua aurkeztu badu, adibidez, ezin izango du lan-egoera aldatu uko justifikatura, esleipenaren ondorio-datan eskuragarri baitago, eta, beraz, nahitaez parte hartu behar du, eta, hala badagokio, lanpostu bat esleituko zaio. Uko eginez gero, zerrendetatik kanpo geratuko litzateke.

- Hautagai batek, emandako epearen barruan 2025-09-01ean indarreko kontratua aurkeztu badu, arrazoi justifikatua izango da esleipenean ez parte hartzeko.

- Izangai bat bere egoera aldatzeko emandako epea amaitu eta lanpostuaz jabetzea beste enpresa batek aldi baterako kontratatzen badu eta 2025-09-01ean kontratua indarrean badu, uko egiteko arrazoi justifikatua izango litzateke, egindako eskaintza ezin aurreikusizko egoeratzat hartzen baita.

Aurrekoa gorabehera, beste enpresa batean kontratu mugagabea duen hautagaiak ez badu kontratu mugagabe hori aurkezten bere lan-egoera uko justifikatuan jartzeko behin-behineko zerrenda argitaratu baino 3 egun lehenago, lanpostu bat esleituz gero, ezin izango dio uko egin kontratu mugagabe horretan oinarrituta.

****Oharra: 2024/25 ikasturtean dauden lan egoeran mantenduko dira ordezkogaiak. Ondorioz, ordezkogaia 2024/25 ikasturtean uko justifikatu moduan badago ez du ikasturte hasierako esleipenean parte hartuko, salbu eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenagorarte ez bada prest egoeran jartzen.*

a.2) Lanaldi murritzeko lanpostu bati uko egiteko, helbidearen eta lanpostu hori dagoen ikastetxe publikoaren artean 50 kilometro baino gehiagoko distantzia bat egotea ezin izango da justifikatutako arrazoia izan.

b) Lan-kontratua formalizatzea.

Esleipenaren ondoren, lan-kontratua idatziz formalizatu beharko da.

Kontratua formalizatzen den datan, adin txikikoekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbide eta jardueretan aritzeko Adin Txikikoaren Babeserako lege organikoak 13.5. artikuluan exijitzen duen baldintza betetzen dutela ziurtatu beharko dute ordezkogaiak, edo Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko baimena eman beharko diote Administrazioari.

Kontratua formalizatzen den datan, pertsonal fisioterapeutak elkargoan sartuta egon beharko du.

c) Lanaldi murritzeko lanpostuak.

Lanaldi murritzeko lanpostuetarako kontratazioa egiteko, lanpostu horiek zerrendan argitara eman diren orduen arabera jokatu da (orientagarriak).

d) Jabetza-hartzea eta kontratazioa.

Jabetza-hartzeak eta kontratazioak 2025eko irailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.

XIII. - EGOERA BEREZIETAN DAUDEN ORDEZKOGAIK.

Izangaiek, lanpostua aukeratuko dute ikasturte-hasierako adjudikazio-prozeduran, egoera hauetako batean badaude, betiere behar bezala justifikatuz gero: lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik, edo haurra izen dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; amatasun- edo aitatasun-egoeran; haurdunaldian arriskua

edo arriskuko haurdunaldian; edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran; edo jardunaldi-etete iragankorrean (seme-alabak zaintzeko edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitu dietelako); gainera, eskainiko zaien ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzalditzat zenbatuko zaie, zerrendak birbarematzeari dagokionez bakarrik bada ere. Baremorako kontuan hartutako zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Aurreko egoera horietan dauden ordezkogaiek izango dute lanpostuan ikasturtean zehar hasteko aukera, egoera hori eragin duen gertaerak bukatu ondoren.

Lanpostu bat esleitu zaion eta egoera horietakoren batean dagoen pertsonalak, egoera horrek ikasturte berrian jarraitzen badu, tokian-tokiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio.

Aurreko paragrafoan azaldutako egoerek bukatu ondoren formalizatuko dira pertsonal horren kontratuak.

XIV. - BATERAEZINTASUNARENGATIK ESZEDENTZIAN DAUDENAK.

Hau jakinarazten dugu: bateraezintasunarengatik eszedentzian daudenek, Hezkuntza Saileko irakasle-lanpostu bat esleitzen bazaie, Sindikatuekiko Harremanetarako Zerbitzuari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren, Tramitaguneren bidez eta 94.501.82.70, 94.501.84.29 edo 94.501.83.97 telefonoetara deituz.